

5. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Kanalei dagokienez, hiru kanal nagusi bereiziko ditugu.

1. Komunikazio kanalak: Bezeroekin harremanetan jartzeko sare sozialak (Instagram, TikTok, Facebook...), Gmail, gure webgune propioa eta gure denda fisikoa erabiliko ditugu. Hauei esker, produktuak aurkeztu, eskaerak kudeatu eta bezeroekin harreman zuzena izango dugu. Era berean, iragarki erakargarriak sortuko ditugu gure marka indartzeko.
2. Banaketa kanalak: Produktuak bezeroari banatzeko bi modu egongo dira:
 - 1) Bezeroa dendara etorri daiteke produktua jasotzera.
 - 2) Guk bidali ahal diogu etxera, edo berak adierazitako puntu zehatz batera.
 - 3) Bezeroak beste denda edo kolaboratzaile batzuen bidez banatzea.
3. Salmenta kanalak: Salmenta-prozesua aurrera eramateko bi modu daude. Lehenengoa izango litzateke, web-orriaren bidez erostea, eta bigarrena dendara etorri eta erostea.

